

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Osasun Departamentuak laguntzak deitu ditu lehen aldiz espektro autistaren nahasmenduak dituzten adingabeak tratatzeko

*Garun-paralisia edo antzeko nahasmendu neurologikoak dituzten adingabeak Petö metodoaren bidez tratatzea ere diruz lagunduko da*

Asteartea, 2016.eko azaroak 15

Osasun Departamentuak, lehen aldiz, 2016. urtean espektro autistaren nahasmenduak dituzten 18 urtetik beherako pertsonen tratamenduak sortutako kostuak diruz lagunduko ditu; horretarako, 80.000 euro bideratu dira. Nafarroan espektro autistaren nahasmendua duten 250 bat adingabe daude.

[Deialdia](#) atzo, astelehena, argitaratu zen Nafarroako Aldizkari Ofizialean (NAO), eta laguntzak eskuratzeko epea abenduaren 5ean amaituko da. Baldintzei dagokienez, beharrezkoa da espektro autistaren nahasmenduaren diagnostiko bat izatea (edo hura baieztatzeko prozesuan izatea), Nafarroan bizitzea, eta tratamenduaren egokitasuna beharrezko kualifikazioa duen profesional batek agindu izana.

Tratamendua homologatuta izango da, eta honako hauetako profesionalek emango dute: psikologia, maisutza, pedagogia, fisioterapia, logopedia, terapia okupazionala, erizaintza edo gizarte-lana beharrezko prestakuntzarekin. Laguntzek gehieneko tarifa batzuk finkatzen dituzte tratamenduko modalitateetarako: psikologia-ordua, 40 €, fisioterapiakoa, 25 €, logopediakoa, 27 €, psikomotrizitatekoa, 25 €, terapia okupazionalakoa, 20 €, taldekako terapiako saioa, 14 € eta estimulazio-saioa, 25 €. Eskatutako zenbatekoen batura dagoen aurrekontua baino handiagoa balitz, hainbanatu egingo da, eta hala, eskatzaile bakoitzak egindako gastuaren gainean ehuneko bera jasoko du. Laguntza horiei lotutako informazio guztia [www.navarra.es](http://www.navarra.es) webguneko zerbitzuen katalogoari dagokion [fitxan](#) ere kontsulta daiteke.

### 116.000 euroko laguntzak Petö metodoaren bidez tratatzeko

[NAO](#)k, halaber, garun-paralisia edo antzeko nahasmendu neurologikoak dituzten 16 urtetik beherako adingabeen familiei laguntzeko [deialdia](#) argitaratu du, errehabilitazio-tratamendua hartu dutenak 2016an Petö metodoa baliatuz. Haien eskatzeko epea abenduaren 5ean amaituko da, eta laguntzak eskuratzeko (116.635 euro), Nafarroan bizi behar da eta tratamenduaren egokitasuna Osasunbideko edo itunpeko zentro bateko espezialista batek agindu izana.

Pertsona onuradun bakoitzak laguntzak jasoko ditu gutxienez tratamenduaren oinarritzko ziklo bat ordaintzeko (1.360 bat euro), dagoen

aurrekontua gaitzen bada salbu. Ziklo hori deskontatzen denean, laguntzak tratamenduaren kostuarekin proportzionalak izango dira.

Bideratutako zenbatekoa % 9ko igoera da 2015eko laguntzekin alderatuz (107.000 euro); orduan, 38 adingabek jaso zuten laguntza, 24 mutilek eta 14 neskek, eta zenbateko horrekin familiek egindako gastuaren % 90 inguru estali zen.